

LAN BATZORDE IREKIAK

LAN BATZORDE IREKIAK			
TALDEA	EUSKARA ETA KULTURA		
IRAUPENA	Ordubete eta 40 minutu	EGUNA	2016-01-14
GAIA		DEIALDIA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Makilari 2. Batzordea

PARTE HARTZAILEAK

Jokin Murua	Iban Maiz	Iñigo Igartzabal	Ezin etorria adierazi dute:
Aratz Igartzabal	Xabat Goikoetxea		Leire Murua
Aingeru Apaolaza	Ander Yurrita		Gorka Maiz
Marian Bidegain	Arantzazu Baztarrika		

ERABAKIAK

GAIA	EKINTZAK	ARDURADUR A	NOIZKO
UDAZKEN / NEGURAKO EKITALDIAK	<p>Azarotik urtarrilera arteko kultur ekintza guztiak bateratuta jartzea ideia ona izan da. Hala ere, hurrengorako informazioa zabaltzerakoan kartel deigarriagoak egin behar genituzkeela uste dugu. Gainera, watxapa balia dezakegu ekintzen berri emateko, talde ezberdinetara zabalduaz, ekitaldien bezperako egunetan gogorarazteko emailak/watxapak bidaltzea ere ez dago soberan.</p>	IÑIGO	
UDABERRI KULTURALA	<p>Aurtengo <i>udaberri kulturala</i> martxan jartzeko ideia dezente atera dira. Oraindik ezer lotu gabe baldin badaukagu ere, adin ezberdinetako jendearentzat ahalik eta egitarau zabalena osatzea da gure nahia.</p> <p>- Hartu eman ikastaroak</p> <p>1. Ogia eta gailetak: Aristizabalgo Zuhaitz Akizurekin hitz egitekotan geratu gara. MARTXOAK 12</p> <p>2. Baratzeko lanak: Edurne eta Joxerekin hitz egitekotan geratu gara</p> <p>- Eskola umeein grabatutako bideoak</p> <p>laz eskola umeein pare bat bideo grabatu ziren gurasoen artean euskararen erabilera jaisten ari dela eta, gurasoak horretaz kontzientzia daitezen. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldunditik ere beste bideo bat grabatu zen. Orain arte bideo horiek ez dira inon erakutsi.</p> <p>Bideo horiek gurasoen eta herritarrei erakutsi nahi dizkiegu. Guztira, hiru bideoen artean ordu laurdeneko iraupena dute, gutxi gorabehera. Ez dugu, ordea, bideo emanaldi soila izatea nahi; biltzen direnen artean dinamika bat sortzea eta gaiaz eztabaidatzea izango da helburua.</p> <p>Momentuz Emun Kooperatibakoekin jarri gara harremanetan egoera zein den azaldu eta bideo emanaldi ondorengo dinamika prestatzen lagun diezaguten. Honetaz gain, hurrengo irakurle txokoko liburuaren egilea den Karmelo Ayestaren hitzaldia jartzea ere ez da baztertzen bideo emanaldien segidan. Bera gai horretan</p>		

aski aditua da eta baduela zer esana uste dugu.

Oraingoaz, beraz, kontua honi pixkanaka hautsak kentzen hasi gara, eta hurrengo batzorderako zerbait zehaztuko dugu.

- Mahai ingurua kirolariekin

Iaz egin zen formatua errepikatu nahi da, hau da, moderatzaile bat eta hiruzpalau kirolarirekin hitz aspertua. Kirolariak zein izan daitezkeen zehaztu ez badugu ere, zenbaitzuen izenak atera ziren; hala nola, Txomin Arana moto gidaria, Maider Unda borroka libreko kirolaria, Iker Irribarria pilotaria...

- Alberto Iñurrategi

Deskontuarekin 300 € kobratzen ditu emanaldi bat egiteagatik. *Udaberri kulturalerako* interesgarria izan daiteke.

- Sukaldaritza ikastaroa

Urtero errepikatzen den ikastaro honek arrakasta izaten du, eta aurten ere *udaberri kulturalaren* baita egun bateko ikastaro bat egingo dugu. Ezer zehaztu gabe dago (iaz azkenean Mutiloako Ostatukoek egin zuten).

- Kale antzerkia haurrentzat

Eusko Jaurlaritzak aire zabaleko gune publikoetan egiten diren arte eszenikoen ikuskizunen programak garatzeko 2016.urtean diru-laguntzak emango ditu, *Kale antzerkia bultzatuz* programa.

Udaberri kulturalerako, diru laguntza hori aprobetxatuz haurrei zuzenduriko zerbait jartzea egokia litzateke: kale antzerkiren bat, txotxongiloak... Aukera ezberdinak ikustekotan geratu gara.

- Errezildarren ateraldiak

Badira hiruzpalau urte Laxaro Azkunek eta Imanol Lazkanok *errezildarren ateraldiak* izeneko liburu atera zutela. Gerora, zenbait herritan egin izan dituzten liburu horretan agertzen diren ateraldi horien kontaketak, eta Gabiriarako aproposa iruditzen zaigu. Eurekin hitz egitekotan geratu gara.

- Jakoba Errekondo

Azkenaldian eman du zeresana Jakoba Errekondoren *Bizi baratzea* (garaian garaikoa garaiz) liburuak. Interesekoa dela iritxita, berarekin hitz egitekotan geratu gara.

- Felix Zubia

Hau ere urtero gurean izaten dugun ikastaroa da, gainera, bera oso gustura etortzen omen da. Aurtengorako ere izango da zerbait.

- Isladiako euskal arrantzaleen hilketa

XVII.mendean zenbait euskal baleazale erail zituzten Isladiako uretan. Horri buruzko dokumental bat egin du *Suhar Arkeologia* taldeak, otsailean aurkeztuko dute Beasainen, eta Gabiriara ere ekartzeko moduko dela uste dugu.

Zuhaitz Akizu Islandian egon da bizi izaten eta berak edukiko du Suharrekoekin harremanak egiteko modua.

- Ibilaldia

Azken urteetan Jose Luis Ugarterekin zenbait ibilaldi egin izan dira azalpenak tarteko. Aurtengo urtean ere zerbait egin liteke. Ez dugu

	<p>oraingoz ezer pentsatu.</p> <p>- I. Leharrei Mendi lasterketa</p> <p>Apirilaren 9an I.Leharrei Mendi Lasterketa egingo da Gabirian.</p> <p>http://www.leharrei.eus/</p>		
AUTODEFENTSA IKASTAROA	<p>Judoko irakaslearekin hitz egin dugu eta bera prest legoke ikastaroa emateko. Ez dakigu oraindik ze koste izango lukeen udalarentzat. Eguna zehaztu gabe dago eta berarekin adostea falta da.</p> <p>Gizon-emakumeentzako ikastaroa izango da, eta, batez ere, alderdi fisikoa landuko da.</p>		<p>Otsailak</p> <p>20</p> <p>17:00etan</p>
HARTU EMAN IKASTAROA	<p>Aurrerago egin daitezkeenak...</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kotxearen mantenurako oinarrizko ikastaroa – Julen Makazaga - - Lehen Sorospinak – Pake Galdos - 		
IRAKURLE TXOKOA	<p>“Goza daiteke gehiago euskaldun baten hizkuntza bidaia”</p> <p>– Karmelo Ayesta -</p>		<p>Urtarrilak</p> <p>16</p> <p>16:00etan</p>
JUANJO SAN MIGUEL	<p>Hitzaldirik ez duela ematen esan du, baina hitzaldi informal bat emateko prest egongo litzatekeela afari baten bueltan.</p>		
FILMEAK	<ul style="list-style-type: none"> - Leku hutsak, hitz beteak – Bernardo Atxaga – HELDUENTZAT - Bost Axola Bemola – HAURRENTZAT - Euskal ABDaren harriak – HELDUENTZAT - Zehaztu gabe dago?????? – HAURRENTZAT <p>Helduentzako filmeak gaueko 22:00etan, haurrentzakoak, aldiz, arratsaldeko 17:30ean.</p>	AINGERU	<p>Otsailak</p> <p>12</p> <p>Otsailak</p> <p>20</p> <p>Martxoak</p> <p>4</p> <p>Martxoak</p> <p>19</p>
SUKALDARITZA IKASTAROA	<p>Egun bateko sukaldaritza tailerra eskaini beharrean, ea beste ze aukera dauden enteratzekotan geratu gara: janari makrobiotikoaren gainean...</p>	XABAT	
BERTSOLARITZAREN SEKRETUAK	<p>Garai bateko bertsolari emakumeen inguruko emanaldia. Zergatik ez zaigu euren ahotsa iritsi gaur egunera arte? Ez al zegoen emakume bertsolaririk?</p> <p>Antzerki honetan Jokin Murua bera dugu partaide eta aurrerago jartzeko modukoa izan daiteke.</p>	JOKIN	
MUSIKA	<p>Urte berri egunean saloian egin ziren bezalako kontzertuak errepika daitezke. Formatu egokia dela uste dugu.</p>		

	Bestalde, ostiral iluntzetan pintxo pote garairako beste estilo bateko musika taldeak ekartzea egokiagoa da. Zerbait martxosoagoa.		
--	--	--	--

HURRENGO BATZORDEA

OTSAILAREN 11n, osteguna, 19:00etan